

Zoriontsuak al dira?

Zoriontsuak al dira mugaz bestaldeko biztanleak, alegia?

K. hizkiaren inguruan ari garenez, Josi eta Angel, nik ere letra honekin hasten den beste hitz bat bihurtu nahi nuke giltzarri: *Kuriositatea*, hots, jakinmina. Azken aldion gure auzoko herrira –hemengo idazleen jargoian *territorio enemigo* litzateke– asko bidaiatzeko aukera izan dut, literatur kontu batzuk direla-eta. Ez nuke, jakina, antropologo bidaiariarena egin nahi, bertan bizi izan dudana esperientzia exotikoa xehetasun guztiekin kontatuz. Barregarria litzateke kontuan harturik beste mundu hura hain hurbil daukagula, bai fisikoki, bai informazio ugari iristen zaigulako egunero “handik”. Eta alta... Ba al dago gauza urrunagorik, ulergaitzagorik gure auzokoa baino? Iskanbila eta herra handienak hurbilekoarekin izaten dira.

Han nenbilen bitartean gertaturiko bizpahiru anekdota ekarriko ditut hona.

1. Tokia: Asturias. Data: 2007ko iraila. Aitzakia: Estatuko idazleen topaketa literario bat. Hogeitabat idazle bildu ginen. Eztabaidagaia: espainiar letren irudia Europan. Nik euskal literaturaren esportazioari loturiko problematika izan nuen hizpide eta beste hainbeste egin zuten delegazio euskalduneko beste bi kideek nahiz delegazio katalana eta galegoetakoe. Gure arazoa eta kezka ez zen, noski, gaztelaniazko literaturaren harrera Europan zehar. Bai ordea gaztelaniaren eta espainiar sistema literario indartsuaren bitartekaritazatik igaro beharra, zoritxarrez ezinbestean, Europara ala mundu osora iritsi ahal izateko. Eta hortik abiaturik eztabaida gero eta politikoa bihurtu zen, harik eta antolatzaileak eztabaidari kutsu estriktoki literarioa berrerantsi nahian mahaian kolpe batzuk jo zituen arte. Topaketa horien ostean *email* batzuk trukatu ditugu eta horietako batean argazki polit bat zegoen dena laburbiltzen zuena. Bertan, ironiaz betetako irribarraz, idazle bat agertzen da –andaluzia-



DANI BLANCO

Ur Apalategi Idirin

Basterretxea

Errro

rra bera– eztabaidak igaro ziren etxeko eskaileran, eta bere atzeko paretan plaka bat dago zera dioena: *Prohibido hablar de política*.

Bazkaltzeko orduan, kurioski, gehiago mintzatu ginen literaturaz baita bertan zeuden “benetako” espainolekin ere –xarmangarriak, bidenabar, eta ia denak sozialistak, nik uste–, gure *desberdintasun nazionalak* ahantzirik. Eta harritu ninduen

ikusteak beraiek ere beldurra zietela espainol nazionalista eskuindarrei. Eta sinetsi nahi dut ez zela bakarrik botere politikoaren erosotasuna galtzearen beldurra, baizik eta inoiz egiazki amaitu ez den gerla zibilaren arrasto sakona.

2. Tokia: Madril. Data: 2007ko urria. Aitzakia: epaimahai literario bat. Goiz osoa bozkatzten pasa ondoren, hiru obra gelditzen dira lehian eta horietako bat gaztelaniaz idazten duen Euskal Herriko idazle baten ipuin liburua. Liburu horretako ipuinek euskal gizartearen gatazka politikoak duen eragina aztertzen dute. Ondo samar idatzia dago liburua baina badu *parti pris* nabarmena. Euskal abertzaleen bortizkeriaren biktimen alde egiten du, bestelako biolentzia guztien biktimak “ahantziz”. Epaimahaian dagoen jendea ez da eskuin muturrekoa. Berritro ere susmoa daukat, han gauden katalana, galegoa eta ni neu kenduta, beste “egiazko espainolak” ezkertiarrek direla. Eta hala ere, sinesgarria egiten bide zaie deni –galiziarrari salbu, Euskal Herria ondo ezagutzen baitu– liburuak aurkezten duen giro *aberrchale* itogarria. Azkenean, pedagogia apur bati esker –sinetsi nahi nuke, berritro ere–, eta apika beste liburu biak dezente hobekak direlako, ez du irabaziko saria.

Taxian nago orain, Barajasera bidean, eta irratian honakoa dantzut: Mayor Orejak adierazi omen du frankismoa ez dela kondenagarria eta aldi historiko ezin baketsuagoa izan zela. Berritro ere K.rekin bukatzeko: *Komplexutasuna, Korapiloa... Hartu Kalachnikova* eta egin gura duzuna berarekin, Jose Inazio.

« Mayor Orejak adierazi omen du frankismoa ez dela kondenagarria eta aldi historiko ezin baketsuagoa izan zela. Berritro ere K.rekin bukatzeko: *Komplexutasuna, Korapiloa... Hartu Kalachnikova* eta egin gura duzuna berarekin, Jose Inazio.